

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3780

1444/2026 EBAZPENA, abuztuaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen hau aldatzen baita: 879/2026 Ebazpena, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak goi-mailako teknikarien lanbide-taldeko kategorietan (hainbat lanpostu funtzional), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako.

2026ko ekainaren 1ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 879/2026 Ebazpena, zeinaren bidez onartzen baitira estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak, goi-mailako teknikarien lanbide-taldeko kategorietan (hainbat lanpostu funtzional), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako.

2026ko ekainaren 17an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 9ko 1039/2026 Ebazpena, zeinaren bidez aldatu baitzen maiatzaren 15eko 879/2026 Ebazpena (879/2026 Ebazpenaren bidez, onartu ziren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak, goi-mailako teknikarien lanbide-taldeko kategorietan –hainbat lanpostu funtzional–, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Goi-mailako tituludun kategorian (goi-mailako teknikari juridiko lanpostu funtzionala) letratu gisa emandako zerbitzuak baloratzeko gora jotzeko errekurtsioa baietsi da, eta goi-mailako ingeniari kategoriako (mantentze-lanetako eta instalazioetako goi-mailako teknikari lanpostu funtzionala) gai-zerrenda berrikusi da; ondorioz, 879/2026 Ebazpena aldatu behar da.

Horiek guztiak horrela, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalme-nez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 879/2026 Ebazpena, zeinaren bidez onartzen baitira estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak, goi-mailako teknikari lanbide-taldeko kategorietan (hainbat lanpostu funtzional), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako. Aldaketa honelakoa izango da:

Lan-esperientziari buruzko III. eranskineko 1. atalean:

Hau dio:

«1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu Sanitarioetako Erakundeetan, Gizarte Segurantzakoetan edo Autonomia-Erkidegoetako Osasun-Zerbitzuetoetan, edozein Administrazio Publikotan edota Europar Batasuneko gainerako kideen sare publikoko zerbitzu

sanitarioetan parte hartzen den hautaketa-prozesuan deitutako lanpostu funtzionalean emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,25 puntu.

Era berean, zenbaketa hori aplikatuko da parte hartzen den hautaketa-prozesuko deialdian sartutako lanpostu funtzionalari dagokion eremuaren plangintzan eta kudeaketan erantzukizuneko lanpostuak betetzen direnean.

2.– Erakunde Sanitario Publikoetan goi-mailako kudeaketako lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,05 puntu.»

Hau esan behar du:

«1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, Gizarte Segurantzakoetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetaoetan, edozein administrazio publikotan edota Europar Batasuneko gainerako kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan parte hartzen den hautaketa-prozesuan deitutako lanpostu funtzionalean emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,25 puntu.

Era berean, zenbaketa hori aplikatuko da parte hartzen den hautaketa-prozesuko deialdian sartutako lanpostu funtzionalari dagokion eremuaren plangintzan eta kudeaketan erantzukizuneko lanpostuak betetzen direnean.

2.– Erakunde Sanitario Publikoetan goi-mailako kudeaketako lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,05 puntu.

3.– Goi-mailako tituludun kategoriako (goi-mailako teknikari juridiko lanpostu-funtzionaleko) hautaketa-prozesuan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, Gizarte Segurantzakoetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetaoetan, edozein administrazio publikotan edota Europar Batasuneko gainerako kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan goi-mailako letradu tituludun (letradu korporatibo lanpostu funtzionala) gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,12 puntu.»

Mantentze-lanetako eta instalazioetako goi-mailako teknikariaren berariazko gai-zerrendari buruzko IV. eranskinean:

Hau dio:

«2.– Behe-tentsioko instalazio elektrikoak.

2.1.– Instrukzio tekniko osagarria (ITC):

– ITC-BT-10: Behe-tentsioko horniduretarako kargen aurreikuspena.

– ITC-BT-18: Lur-konexioko instalazioak.

– ITC-BT-22: Barneko instalazioak edo hartzaileak. Gainintentsitateen kontrako babesa.

– ITC-BT-23: Barneko instalazioak edo hartzaileak. Gaintentsioen kontrako babesa.

– ITC-BT-24: Barneko instalazioak edo hartzaileak. Zuzeneko eta zeharkako kontaktuen kontrako babesa.

– ITC-BT-28: Jendeari irekitako lokaletako instalazioak.

– ITC-BT-38: Helburu berezietarako instalazioak. Instalazio elektrikoaren eskakizun bereziak ebakuntza-geletan eta interbentzio-geletan.

- ITC-BT-52: Helburu berezietarako instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura.»

Hau esan behar du:

«2.– Behe-tentsioko instalazio elektrikoak.

2.1.– Instrukzio tekniko osagarria (ITC):

- ITC-BT-10: Behe-tentsioko horniduretarako kargen aurreikuspena.
- ITC-BT-18: Lur-konexioko instalazioak.
- ITC-BT-22: Barneko instalazioak edo hartzaileak. Gainintentsitateen kontrako babesa.
- ITC-BT-23: Barneko instalazioak edo hartzaileak. Gaintentsioen kontrako babesa.
- ITC-BT-24: Barneko instalazioak edo hartzaileak. Zuzeneko eta zeharkako kontaktuen kontrako babesa.
- ITC-BT-28: Jendeari irekitako lokaletako instalazioak.
- ITC-BT-29: Sute- edo leherketa-arriskua duten lokaletako instalazio elektrikoak.
- ITC-BT-38: Helburu berezietarako instalazioak. Instalazio elektrikoaren eskakizun bereziak ebakuntza-geletan eta interbentzio-geletan.
- ITC-BT-52: Helburu berezietarako instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura.»

Bigarrenena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen bidez egindako aldaketen eraginpean ez dauden egintzen eta izapideen baliozkotasunari eusten zaio.

Hirugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutuak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.